

OHIZKO PLENOA UDALETXEAN

Txantxilla inguruan 140 etxebizitza aurreikusten dituen hitzarmena errebisatzeko geratu da

■ Gehiengo absolutorik gabe onartu zen hitzarmena, eta baliorik baduen errebisatzeko gelditu da ■ Bestalde, Atsegindegiko aparkalekuko obrak lehiaketa publikora ateratzea eta baldintzak onartu ziren.

JOAN den ostegunean plenoa izan zen Udaletxean eta puntuetako bat Txantxilla ingururako hirigintza hitzarmena zen. Txantxilla inguruko proiektuan lur jabeekin zein kondizio hitzartuko diren zen erabaki beharreak. Puntua Sozialista Abertzaleak taldeko 8 boturekin onartu zen; EA-EAJk kontra bozkatu zuen eta PSE-EE abstenitu egin zen. EA-EAJk azaldu zuenez Hernaniko Arau subsidiarioen proiektu osoa ez dagoelako botatu zuten kontra eta proiektu orokorra eskatu zuen eta "ez proiektu puntualak". Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotzi bat falta zenez gehiengo absolutorik gabe onartu zen hitzarmena, eta erabakiak baliorik baduen ikustekotan gelditu ziren eta gainontzean hurrengo plenoan berriz eztabaidatzekotan.




Baratzak eta Laubidietako etxea dauden horretan dute egitekoa urbanizazioa.

140 etxebizitza

Txantxilla eta Laubidieta tartean dagoen lur zatian dihoaz etxeak, Axalaraino. L formako lau bloke izango dira, guztira 140 etxebizitza inguru. Hamarretik bi babes ofizialekoak izango dira gutxienez. Hitzarmenak Laubidieta etxea botatzea aurreikusten du eta Txantxillako aparkalekuari pusketa txiki bat kenduko zaio urbanizatzeko. Bestekaldean rotunda bat egiteko asmoa dago Axalako etxea dagoen horretan, oraingo bidegurutzeari irtenbide hobea emate aldera. Hitzarmenak hori guztia aurreikusten du, baina, ejekutatu artean bide luzea izan lezake oraindik ere.

Aparkalekuak Atsegindegin Atsegindegin lur azpiko 180 aparkaleku egiteko obrak lehiaketa publikora ateratzea onartu zuen Plenoak. Aparkalekuetan preferentzia Kaxkoan eta Atsegindegi inguruan bizi diren edo negozioren bat duten pertsonak izango dute.

Osteguneko plenoak onartu zituen beste zenbait puntu dira: Ongintzako zenbait sail Udaletxera pasatzea, Berdintasunerako Kontseilua sortzea, Hitzorduek taldeak proiektu, ideia eta pertsona guztien alde aurkeztutako mozioa, Etxerat elkarteari diru laguntza emateko hitzarmena eta animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Udal ordenantza. □



■ PLATER TIRATZEA

Minifoso txapelketa izango da gaur Santa Barbarako tiro lekuan

TXANTXANGORRI elkarteak antolatuta, plater tiratzea izango da gaur Santa Barbarako tiro lekuan. Gaurko torneoa Minifoso modalitatean jokatu da, 15 platerera. Izena emateko 10:30-etatik 11:30ak arte izango da denbora, tiro lekuan bertan.

Bost torneotatik lehenengoa

Txantxangorri elkarteak 5 torneo antolatu ditu aurtengo urterako. Gaurkoa lehenengoa da 5 torneo horietatik, eta Erregularitate txapelketarako balioko dute 5 torneo horietan ateratzen diren puntuak. Gaur, 10:30etan Santa Barbaran. □

103 odol emaile omenduko dituzte igandean Hernanin

GIPUZKOAKO Odol Emaile elkarteak 25 eta 50 aldiz odola eman duten gipuzkoarrak omenduko ditu bihar, Hernanin. Omenduak 103 dira, horietatik 26 hernaniarrak. Festari hasiera, mezarekin emango zaio, Juan Bataiatzailea parrokian, 12:30etan. Ondoren bazkaria izango da Etxeberria sagardotegian eta omenaldia bazkalondan izango da. □

JUBILATU ETXEA

Sari banaketa eta junta aldaketako bazkaria gaur

JUBILATU etxeko junta aldatu berria dela-eta, larunbatean bazkaria egingo dute ohitura duten gisan. Bazkalondan karta-jokuetako sariak banatuko dira. □

■ FUTBOLA

Hernani-Gure Txokoa gaur

GORENGOAK partidu garrantzitsua du, Gure Txokoaren kontra, gaur, 17:00etan, Zubipen. □

 **Antziola-Motor**
Salmenta eta tailer zerbitzua

ford Tourneo Connect

Gogortasunaren forma berria

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

OIALUME BILTOKIA

Igande eta jaiegunetan dantzaldia, 19,30etatik
Bihar igandea: DISKO TOP
Disko festa
OIALUME BILTOKIA

Oialume auzoa
943 55 29 38

Itxastele, S.L.

Telemar

Aldatu zure ACTIVA 89 eurotik aurrera

PLAN RENOVE

Telemar Itxastele -Elkano kalea 13-
Tel.: 943 553399 / 943 330060

Maiatzaren 4a
Amaren eguna

berak beti erantzun dio zure deiari...


komunikazioa opari iezaiozu

PELOTA -TXAPELKETAKO PARTIDUA GAUR KIROLDEGIAN

Iñaki Esnal: "Aurtengo txapelketak nahiko gutxi jokatu harrapatu gaitu denak ere"

Mendia lagun duela Ayo-Fuertesena kontra jokatu du gaur 22:30etan, Besa-gain enpresak antolatutako lehen mailako txapelketan.

BESAGAINGO Lehen Mailako Txapelketako partidua jokatu dira gaur Hernanin. Lehen partiduan Aldazabal eta Gabarri II neurtuko dira. Bigarren partiduan Esnal-Mendia Ayo-Fuertesena kontra neurtuko dira. Txapelketa jokatu duten beste bikoteak dira: Ariznabarreta-Errandonea, Minguez-Gabarri, Badiola anaiak, Telleria-Elola, Etxaniz II-Amandoz eta Otaegi-Galarza.



Iñaki Esnal.

Aspaldi geldirik

Iñaki Esnal pelotari hernaniarrak Kronikari esan dionez aspaldi partidu gutxi jokatu dute eta sasoi puntua ez da bete betekoa. Enpresako pelotari guztiak daude ordea horrela. Esnal-Mendia bikote ona direla erakutsia dute dagoeneko eta pelotari hernaniarra ere gustora dago: "Mendia zakur zaharra da frontoian eta azken aldian

sasoi onean dabil gainera". Gaurko partidua gogorra izango dela uste du Esnalek "Ayo jotzailea da eta Fuertes segurua, baina, aspaldi ez dakit nola dabilzan". Dudak duda, Esnal irabazteko irrikiz aterako da gaur frontoira eta esperantza haundiak ditu txapelketa ona egiteko.

Enpresen txapelketa

Orain artean Federazioak antolatzen zituen profesional mailako pelota txapelketak, baina, azken aldian Asegarce eta Aspe enpresak antolatu dute beren txapelketa. Besa-goingo pelotariak txapelketa-kanpora utzi dituzte, baita aurreko txapelketetan beren postua irabazita zeukat-en pelotariak ere. Iñaki Esnal bera bigarren mailako txapel-dun gelditua da bi bitara eta finalaurrekoetaraino iritsi izan da buruz buru. Esnalek dioenez "guk beren pelotarien kontra neurtu eta galtzen badute ez zaie batere gustatzen, teoriant gu baikara txarrak eta haiek onak. Orain ez daukagu batere aukerarik beste enpresen aurrean zenbat garen demostratzeko".

Kontuak kontu, Besagaineak maila altuko txapelketa antolatu du aurtengo hau. ☐

'BIBLIA OSOA... GUTXI GORABEHERA' ANTZEZLANA

Lizeaga, Laskurain eta Bengoetxeak Biteri parrez lehertzen jarri zuten, bibliako zati ezagunenekin

Biteriko areto nagusia leporaino bete zen eta jende asko kanpoan geratu zen.

OSTEGUN gauean Biteriko areto nagusian festa ederra jarri zuten Niko Lizeaga, Mikel Laskurain eta Joxan Bengoetxea aktoreek, *Biblia osoa... gutxi gorabehera* antzezlanean.

Hiru artistek, hiru apaizen paperean, Bibliako pasarte ezagunenak kontatu zizkieten Biterira hurbildutakoiei, baina, oso modu pertsonal eta xelebrean. Noeren "arpa", Job santuaren halamoduzko pazientzia edo Jesusi doministiku baten ondorioz jarritako izena, dira adibidetakoz batzuk.

Publikoak etenik gabeko gozatua hartu zuen eta bukaeran, txalo zaparrada luze batekin eman zizkien eskerrak hiru artistei. ☐



Mikel Laskurain eta Niko Lizeaga, Adan eta Ebaren paperean.

Pelikula bakarra gaur Biterin

Gangster en New York gaur, laurunbata, arratsaldeko 19:30etan eta gaueko 22:30etan eta bihar, igandea, arratsaldeko 19:30etan. Umeentzako sesiorik ez izango. ☐

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

☛ Taxiak: 943 550093
☛ Udaltzaingoa: 943 333288
☛ DYA: 943 464622
☛ Autobusak: 943 556662
☛ Anbulatorioa: 943 006666
☛ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

☛ Eguz: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 336077
☛ Gauez: Zatarain
Andoain. Arteta z/g
☎ 943 290802

I. URTEBETETZEA

Amparo Goikoetxea Miranda

2002ko apirilaren 17an hil zen

Amparoren senitartekoei, ezagutu zenuten guztiok gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.



Oroigarri meza **bihar, igandea, apirilaren 27an**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokian.


Hernanin 2003ko apirilaren 26an.

I. URTEBETETZEA

Saturnino Agirre Peruarena

2002ko apirilaren 10ean hil zen

Gogoan zaitugu.



Saturnino gure artetik joan zela urtebete denean, bere omenez egingo den mezara gonbidatzen zaituztegu.

Oroigarri meza **bihar, igandea, apirilaren 27an**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokian.

Hernanin 2003ko apirilaren 26an.

I. URTEBETETZEA

Francisco Aizpurua Salaberria

2002ko apirilaren 7ean hil zen, 78 urte zituela

Emaztea: Joxepi Uribe; Seme-alabak: Txaro eta Jose Luis Erostarbe, Juan Ignacio eta Josune Dorronsoro, Maria Jose eta Juan Carlos Lujanbio, Maite eta Xabier Urrestarazu; bilobak: Igor, Ibai, Asier, Amaia, Maddi, Janire eta Iñaki; anai-arrebak: Maria eta Juan Mari; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak, oroigarri meza gonbidatzen zaituztegu.



Oroigarri meza **bihar, igandea, apirilaren 27an**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokian.

Hernanin 2003ko apirilaren 26an.

I. URTEBETETZEA

Pablo Zubiarrain Otxotorena

(Hernani Txikia' bertsolaria)

2002ko apirilaren 4ean hil zen, 89 urte zituela

-Goian bego-

Emaztea: Manoli Iparragirre Etxabe, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezteza **BIHAR, IGANDEA GOIZEKO HAMAIKETAN, Euskeraz eta HAMABI T'ERDIETAN Erdera (HERNANIKO) SAN JUAN BAUTISTA**, parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernani. 2003ko apirilaren 26an.

IRAGARKI MERKEAK

Esperientzia duen pelukerak Hernani inguruan lan egingo luke. Deitu: 637 09 83 24

Martxan dagoen Pub bat traspasatzen da Kardaberaz kalean. Deitu: 943 55 06 18

18-28 urte bitarteko mutil euskalduna behar dugu Hernaniko taberna batean lan egiteko. Interesatuek deitu: 943 55 26 46 - 658 750 896

KIROLA

ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				PELOTA			
Taldeak		Non	Noiz	Taldeak		Non	Noiz
Goren. Hernani Gure Txokoa		Zubipe	Gaur 17:00	Hernaniko 4 1/2ko txapelketa			
Ema. Kop. Usubill Hernani		Haiane	Gaur 16:30	Kadeteak	Banantes-M ufoz	Kio Hegia	Gaur 12:00
ERRUGBIA				Kadeteak	Gazpi B amuta	Kio Hegia	Gaur 12:30
Nagusiak				O hartzunen paleta gomako finalak			
Eugubi 7 txapelketa		Ejean	Gaur	Nagusiak	Mantzio M aitez M aitez Nat	M adalen so	Gaur 15:30
Jubenilak		Viñaposa	Gaur, bihar	Beterano	Iñaki M az finalan da	M adalen so	Gaur 16:30
Kadeteak		Zazautz	Gaur 12:30	Erremontea - Galarreta			
PELOTA		Taldeak	Non	Noiz			
Profesional mailako Txapelketa							
Buruzbu	A Hazabal Gabarri	Kio Hegia	Gaur 22:30	1) Utega-A ginezabala / Juaristi-Bn	Galaneta	Gaur 16:00	
Bibitara	Esna Mendia / Ayo-Fuertes	Kio Hegia	Gaur 22:30	2) Ezkuna-Urko / Zeberio III Etxabe	Galaneta	Gaur 17:00	
				3) Elizalde-Auzmendi / Sarasua-Aizpuru	Galaneta	Gaur 18:00	
				4) Iribarren-Gaztelu / Matxin III - Etxeberria II	Galaneta	Gaur 19:00	



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00 ETATIK AURRERA

ERREMONTA JAIALDIA:

1. partidua: Uterga - Agirrezabala / Juaristi - Ion
2. partidua: Ezkurra - Urko / Zeberio II - Etxabe
3. partidua: Elizalde - Auzmendi / Sarasua - Aizpuru
4. partidua: Iribarren - Gaztelu / Matxin III - Etxeberria II